Nuestras fundiciones presentan fortalezas y amenazas que obligan a reflexionar sobre las claves futuras. El tamaño, principalmente pequeña y mediana empresa, la capacidad de respuesta ante situaciones complejas, los avances tecnológicos de los últimos años, marcan el camino a seguir. Dejando de lado la crisis actual, las principales amenazas están relacionadas con el mercado global y la entrada en el concierto internacional de los países de mano de obra barata.

La innovación, el compromiso con valorizar el principal activo, las personas, la decidida apuesta por la I+D, la forma de abordar nuevos mercados y la especialización, deben ser las claves que permitan superar la delicada y compleja situación actual.

En la medida que el mercado se encuentra en pleno proceso de reajuste, parece que las formas tradicionales de relación proveedor-cliente no son válidas. El aunar estrategias y crear sinergias son algunas de esas claves que deben introducirse en los nuevos modelos de relación sectorial, ya que el tamaño limita las estrategias solitarias. 

Julián Izaga

Director de Azterlan







Relación de fundiciones ubicadas en los municipios del Duranguesado (2010)

Empresa	Año Fundación	Tipo Fundación	Trabajadores	Municipio
Fundiciones Garbi	1962	H	120	Abadiño
Fundiciones Durango	1956	H	54	Abadiño
Fundiciones Metálicas San Vicente	1953	H	130	Abadiño
Fundiciones Ur Artea	2002	ML	10	Abadiño
Inyectametal	1959	ML	440	Abadiño
Befesa Zinc Amorebieta	1993	OM	16	Amorebieta-Etxano
Ingeniería De Aleaciones	1998	ML OM	30	Amorebieta-Etxano
Fuchosa	1967	H	260	Atxondo
Fundiciones Fumbarri	1956	H	90	Durango
Funsan	1956	H	94	Durango
Betsaide	1989	H	249	Elorrió
Funauto	1996	ML	12	Elorrió
Fundiciones San Eloy	1981	H	194	Elorrió
Fytasa Fundiciones	1915	H	135	Elorrió
Fundiciones Urko-Ase	1983	ML OM	10	Ermua
Fundición Nodular Flesic	1962	H	50	Iurreta
Fundiguel	1930	H	72	Iurreta
Fungarbi	1962	ML OM	16	Iurreta
Furesa	1973	H	94	Iurreta
Fundiciones Mugarra	1975	H	24	Mañaría
Inyectados Gabi	1966	ML	100	Zaldibar

Tipos de fundición (abreviaturas):

Fundición de hierro (H); Fundición de metales ligeros (ML); Fundición de otros metales no féreos (OM)

Fuente: GOBIERNO VASCO (Departamento de Industria, Comercio y Turismo) y CÁMARAS VASCAS Catálogo Industrial y de Exportadores del País Vasco (www.civex.net). Consultado en julio de 2010.

MUJIKA N. (2005) El pasado reciente de Durango y su comarca (1960-1991) Ed. Universidad de Deusto y Mancomunidad de la Merindad de Durango

Las fotografías que componen este reportaje están hechas en la fundición Iurretarra FUNDIGUEL durante su última semana de funcionamiento en septiembre de 2009.

La tecnología empleada hasta su cierre y posterior traslado a Arriandi, se basaba en sistemas de fundición propios de principios del siglo XX.

A diferencia de las tecnologías actuales de fusión eléctrica, la energía empleada en la fundición tradicional es un carbón tratado

llamado "coque" al que se le inyecta aire frío para hacer posible la combustión.

En cada una de estas fundiciones existen dos hornos o "cubilotes" que se van alternando diariamente, ya que el proceso de fundición genera una degradación que hay que reparar tras cada uso.

Una vez que el metal se funde en el cubilote, llega el momento más espectacular y peligroso del proceso. Mediante una pica de metal, se rompe el tapón de arcilla

colocado en la piquera a fin de impedir la salida del metal líquido, y este comienza a fluir, al principio entre explosiones, liberado de la presión a que está sometido.

A partir de ahí, será recogido en "cucharas de colada" para llenar los moldes fabricados con arena, arcilla y material carbonoso.

Tras esta operación, se deja enfriar el hierro líquido, se destruye el molde y se acondicionan las piezas. Y hasta la próxima colada.





Diseño
Diseñua



Calidad
Kalitatea



ESPECIALISTAS EN MONTAJE DE FIERROS
INTERIORISMO STANDS EVENTOS...
ALDI BATERAKO MUNTAKETAN ADITUAK
INTERIORISMO AOSTANDA KEKITALDIAK



Seguridad
Segurtasuna



Compromiso
Konpromisoa



Confianza
Konfiantza





A Z T E R L A N

METALURGIA IKERKETA ZENTROA

UN EQUIPO DE PERSONAS

**COMPROMETIDO CON LA SOCIEDAD Y EL MEDIO AMBIENTE,
CREANDO CONOCIMIENTO Y APOYANDO EL DESARROLLO
DEL TEJIDO INDUSTRIAL**



Aliendalde Auzunea, nº 6
Tel. 94 6215470
www.azterlan.es

48200 Durango (Bizkaia)
Fax. 94 6215471
azterlan@azterlan.es

DURANGALDEA ETA ZINEMAGINTZA

TESTUA: J.J. BAKEDANO

Gure eskualdearen eta "zazpigarren artea"ren arteko harremana ez da oso estua izan. Hala ere, zuzendari batzuei inguru hauek paregabeak iruditu zaizkie euren kontakizunak egiteko. Halaber, gure inguruko herritar asko murgildu dira zeluloidearen industrian, eta hainbat modutan esku hartu dute diziplina horretan. Filmen artean fikziozko hiru nabarmendu dira inolako zalantzarik gabe: "Y ELIGÍO EL INFIERNO" (1959), "VIAJE AL VACÍO" (1968) eta "ORAINGOZ IZEN GABE" (1986). Mendiolan antzeztutako "LAUAXETA" (Jose A. Zorrilla, 1987) filmaren sekuentzia bat ere oso aipagarria da. Hurrengo artikuluko batean aztertu beharko ditugu beste hainbat lan: telebistako saioretako sekuentziak, dokumentalak eta laburmetriak esaterako.



Y ELIGIÓ EL INFIERNO

Cesar Fernandez Ardavin-ek (Madril, 1922) zuzendu zuen filma. Gainera, beste eginkizun eta arduraz batzuk ere izan zituen: gidoigintza eta CLAVE FILMS ekoizte-txarean zuzendaritza; ARO FILMSeko jabea ere izan zen. 200 dokumental baino gehiago eta 12 filma egin ditu ("Tormeseko itsumutila" besteak beste). Hori gutxi ez, eta ASDREC (Espainiako zinema-zuzendarien sindikatua) ere zuzendu zuen.

"Y ELIGIÓ EL INFIERNO" *Gerra Hotzean* kokatuta dago. Filmak Elsa-ren drama kontatzen digu. Emakumea "Socorro Blanco" zeritzon taldeko kidea zen, Alemaniako Errepublikak Demokratikoko gobernu komunistaren aurkakoa.

Elsa-ri egoera dramatiko batzuk gertatu zitzaizkion, eta ondoren mendebaldeko eremuan eroso bizitzeko aukera etorri zitzaion, "Altzairuzko hesiaren" bestaldean alegia.

Dena dela, egoerarekin konpromiso handia zeukanez, ekialdera itzultzea eta borrokan jarraitzea erabaki zuen. Hautu hori zela-eta sortu zen izenburua, zalantzarako biderik ematen ez duen izenburua inondik ere.

Erne egonez gero, Durangoko kale batzuk ikusiko ditugu. Gaur egun Maristen frontoia dagoen lekuan zegoen biltegia esate baterako. Ardavin-ek filmazioari buruzko gauza interesgarriak esaten ditu: "Zuri-beltzean filmatu genuen, eta Espainiako iparraldeko herri batzuk itxuraldatu genituen. Ondarroari, Lekeitiori, Mutrikuri eta beste hainbat herriri Alemaniako iparraldeko herrien antza ematen ahalegindu ginen, bai arkitekturan bai giroan. Ekialdeko eremuaren itxura lortzeko, mila argazki baino gehiago ekarri nituen handik; posta-bulegoak, iragarriak, propaganda, letrak eta abar nolakoak ziren jakiteko. Polizia armatuekin sartu nintzen ekialdean."





VIAJE AL VACÍO

Javier Setó-k (Lleida 1926 – Madril 1969) "giallio" generoaren ildoari jarraituz egindako azkenaurreko filma da (Italiako polizia filmek hartzen dute deitura hori). Setó-k genero guztietako filmak egin zituen, 26 guztira. Marujita Díaz-ek egindako txukunenak zuzendari honen gidaritzapean egin zituen. "El valle de las espadas" deritzon superproduzio espainiar-amerikarra ere berari zor diogu.

Filma hau Durangaldean grabatu zuten ia osorik. Filmean inguruko makina bat bazter aurkituko ditugu: San Blas Ostatua (garai hartan arkitektura modernoaren erakusgarria zena), Durangoko tren-geltokia zinema beltzeko antzeztoki bihurtuta, lurretako gasolindegia, Elorrioko nahiz Berrizko bazterrak eta abar. Durangoko udaltzainen Jeep zaharra ere ageri da.

Carlos Aguilarrek "Guía del Cine Español" liburuan honela deskribatzen zuen argumentua: "Neska eder eta handinahiko bat gizon heldu eta aberats batekin ezkondu da. Senarrarekin nazkatuta, koinatua limurtzea erabaki du. Emakumeak burua berotuko dio maitaleari senarra eroarazteko. Plana prestatu ondoren, neskaren aspaldiko babesle bat agertuko da. Babeslea xantaia egiteko asmoz dator".

Koloretan egindako suspense-istorioa zen. Garaiko aktore ospetsuak aritu ziren antzezpen-lanetan: Larry Ward, Amerikako telebistako izarra; Teresa Gimpera, Bartzelonako Eskolak une hartan bultzatutako aktorea; Giacomo Rossi-Stuart, genero-zinemagintzako klasikoa.



Rodada íntegramente en ESPAÑA
con EXTERIORES en

**BERRIZ, ELORRIO,
DURANGO y BILBAO**

Todos los personajes y hechos de esta película
son imaginarios. Cualquier semejanza con
la realidad es pura coincidencia.



FIESTA



Jose Luis de Villalonga-ren eleberri homonimoan oinarrituta dago. Pierre Boutron frantziarrak 1994an zuzendutako filma honetan Jabier Agirresarobe eibartarrak hartu zuen argazki-zuzendaritzaren ardura. Filmaren zati bat Elorrioko 'Tola' jauregian grabatu zuten.

Istoria Espainiako gerra zibilean kotatuta dago. Garai eta egoera hartan, gazte batek borrokara joan behar du, matxinatuen taldean borrokatzera, eta eginkizun horretarako prestatzen ari da. Filmean Jean Louis Trintignant aktorearen mailako profesionalak esku hartu zuten.


ORAINGOZ IZEN GABE

Jose Julian Bakedanok zuzendu zuen Bernardo Atxagak idatzitako gidoia. "Oraingoz izen gabe" abiapuntu erabakigarria izan zen eskualde honetako aktore askoren zat. Haietako batzuek ibilbide luzea egin dute gerora. Antzezleen artean izen ezagunak aurkituko ditugu: Iro Landaluze, Felix Arkarazo, Elene Lizarralde, Luis Iriondo, Eguzki eta Eskarne Aroma beste batzuen artean.



Atxagak moldatutako ipuin honek bi anaiaren bizimoduaren berri ematen du 52 minutuan. Mutilak baserri batean bizi dira, bakar antzean. Halako batean prostituta bat agertuko da eta bizimodua hankaz gora jarri eta euren arteko harremana kakaztu egingo da. Istorioak amaiera negargarria izango du.

Filma euskaraz eginda dago, eta soinua zuzenean jasota. Eszena bat ez beste guztiak (Lekeitiokoa kenduta), dena Durangaldean filmatuta dago: Urkiolan, Abadiñon, Garain, Durangon eta abar.





Ahora, Manuel, vas a entrar ahí,
y no salgas si quieres...



KUBATARREKIKO LOTURA

Octavio Cortazar zuzendari kubatarrak aipamen berezia merezi du, nahiz eta artikulu honek aztertzen dituen atal-letara bete-betean ez egokitu.

Kubako Iraultzaren kronika filmen bidez egin zuen sortzail-ehonek Berlineko jaialdiko Zilarrezko Hartza irabazi zuen 1977an eta 30 filma baino gehiago egin ditu, dokumental-ak eta fikziozkoak batuta. Octavio Cortazar bere euskal sustraian bila ibili zen azkenengo filmetako batean.

“EL ONCENO MAESTRO” lanean hain zuzen ere, Cortazar arbasoen arrastoaren atzetik ibili zen. Saio hark Otxandioraino ekarri zuen. Izan ere, zinemagilearen aitona Otxandiotik abiatu baitzen Habanara. Octavio urte askoren ondoren etorri zen senideen baserri zaharra ikustera, “Kortazarrenea” baserriaren taupadak sentitzera.

Dokumentala grabatuz, bere oroimenaren atalekin iragana osatu ez ezik, Otxandioko historia ere gogorazi zuen. Lan horretan otxandiar askok eta askok esku hartu zuten.

Dokumentala amaituta ikusteko aukera izen zuen, bai; baina 2008an bihotzekoak jota hil zen ustekabean. Hori zela-eta, Euskal Herriko jaialdietara aurkezteko ametsa zapuztuta geratu zen. Kubako Zinemagintza Sari Nazionalerako izendatuta ere egon zen, baina hango txaloak ere ez zituen entzun.

EKOIZPENA

Andoni Esparza Gallastegi

Elorrioko industrialari honek FUNCOR sortu zuen. Horrez gain, garrantzia handiko bi lan egin zituen zinemagintzan, sustatzaile-lanetan zehatzago esanda.

Alde batetik, Eduardo Ducay-rekin, Joakin Gurrutxaga-rekin eta Leonardo Martinekin batera, EPOCA FILMS ekoiztetxea sortu zuen 1959an. Andoni Esparza bazkide kapitalista izan zen, berak dirurik jarri ez balu, egitasmoak ez zuen aurrera egingo.

Pentsaera aurrerakoia zeukanez, kalitatezko zinemagintzan inbertitu nahi zuen alde batetik, eta enpresari kooperatiba-egitura eman nahi zion beste alde batetik. Senide batek, Sabin Arrillagak (lehengusina baten senarra zen), *Amaya* filma finantzatu zuenetik, zinemarekiko interesa piztu zitzaion. *Amaya* filma (Luis Markinak 1952an zuzendutakoa eta Hudesak ekoiztutakoa) Francisco Navarro Villoslada idazlearen *Amaya o los vascos del siglo VIII* eleberraren moldaketa zen. EPOCA FILMSen lehenengo filmak, Marco Ferreri-ren *Los chicos* (1959) lanak alegia, arazoak izan zituen. 3. maila eman ziotenez eta ondoren 2. B mailan kokatu zuten, baztertuta geratu zen. Hori ikusirik, ekoiztetxeak musikan oinarritutako filmak egiteari ekin zion. Etorkizun handiko gazteak aukeratzen zituzten aktore-lanak egiteko (Rocio Durcal, Raphael, Ana Belen). EPOCA FILMSeK beste enpresa indartsu batekin koproduzitzen zituen lanak, Procusa-rekin (indartsua izan arren, ez zuen askorik iraun). Opos Dei-ko kideek eta haien inguruko jendeak sortutako enpresa izanik ere, bestelako jendearekin elkartzeko gogoak bazuten, eta 60ko hamarkadako enpresa gehienek bezala, Europako beste enpresa batzuekin koproduzitzeko prest zeuden.

Tristana-n erabilitako estrategiaren azpian bazegoen beste arrazoi bat: gidoia zentsuratu eta filma Espainiatik kanpo egitera behartuz gero, kanpoko bazkideak izatea oso komenigarria zen. Aipatutako arazo horiek izan zituen 1961an Buñuelek Espainian alde aurretik filmatutako *Viridiana*-k. Esparza-k Buñuelen lana produzitu ondoren alde egin zuen Epoca-tik. Dena dela, garai hartan Ama Lur S.A. Zinema Banatzaileko kidea ere bazen. Enpresa hark *Ama Lur* dokumentala (Fernando Larruquert eta Nestor Basterretxea) produzitzeari ekin zion 1964an.

DURANGO ZINEMAN

DURANGO EN EL CINE



ABENDUAK 3
ORAINGOZ IZEN GABE (1986)
Jose Julian Bakedano
(subtitulua en castelana)




ABENDUAK 10
VIAJE AL VACIO (1968)
Javier Setó



ABENDUAK 17
Y ELIGIÓ EL INFIERNO (1957)
Cesar Fernández Ardavin

SAN AGUSTIN KULTUR GUNEAN  ORDUA-HORARIO 20:15

2008ko abenduan Gerediaga Elkarteak antolatutako zinema zikloa 


Baleuko

1993an BALEUKO SL sortu zen ikus-entzunezko munduan. Filmak, animazioa eta telebistarako saioak egitea zuen helburu. BALEUKOren egoitza Durangon dago eta animaziozko 8 film luze, fikziozko 2 eta hainbat dokumental eta telebista-saio egin ditu.

1998an, Baleukok egindako "MEGASONIKOAK" filmak (1997) GOYA saria irabazi zuen animazio-sailean. Megasonikoak 3Dn osorik eginda dago, garai hartan teknika hori erabiliz egindako beste luzemetraiarik ez zegoen Europa osoan.

Fikziozko filmen arloan, "EUTSI" egin zuten 2007an eta "SATURRRARAN; IZARREN ARGIA" estreinatu zuten 2010ean. Azken hau emakumezkoen kartzela bati buruzkoa da. Gerra garaian Saturrraraneke hondartzan izandako presondegiaren berri ematen du, eta memoria historikoa berreskuratzeko saiotzat hartu behar da.

AKTOREAK ETA GIDOILARIAK

Artikulu hau amaitu aurretik Durangaldeko profesional batzuek nahitaez aipatu behar ditugu: Imanol Arias, Anne Igartiburu, Felix Arkarazo, Andoni Ferreño, Ane Irazabal, Loli Astoreka, Alfonso Torregrosa, Paco Obregon, Iro Landaluze, Amaia Salamanca, Aitor Mazo... eta jokatu nuke norbait ahaztuko dugula. Aktore horiek guztiak, beraz, aspalditik ari dira lanean, eta hainbat filmetan parte hartu dute. Beste profesional batzuek, ordea, istorioak asmatu dituzte: besteak beste, Edorta Barruetabeñak eta Unai Iturriagak. 

José Julián Bakedano

Zinemagilea



KIROLENE

KIROL IRAKASKUNTZEN ESKOLA

Kirol Irakaskuntzen Ikastetxe Publikoa
Centro Público de Enseñanzas Deportivas



Titulazio Ofizialak Titulaciones Oficiales

Saskibaloia Baloncesto

Eskubaloia Balonmano

Futbola eta areto futbola Futbol y fútbol sala

Atletismoa Atletismo

Mendikirolak eta eskalada Deportes de montaña y escalada

Neguko kirolak Deportes de invierno

...eta abar etc...

San Inazio Auzunea, 5. • 48200 DURANGO • BIZKAIA

Tel. 946 811 119 • Fax. 946 030 668

info@kirolene.net • www.kirolene.net



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

EUSKADIN,
KALITATEAREN IKURRA



IZKIA DA

EN EUSKADI, CALIDAD
SE ESCRIBE CON



MARTÍN DE BERATUA

y las torres campanario de la Rioja (S. XVIII)

TEXTO: JOSÉ ÁNGEL BARRIO LOZA

FOTOS: TXELU ANGOITIA

 Briones. (La Rioja).



La comarca del Duranguesado ha sido tierra muy fecunda en los oficios de la construcción, singularmente de la cantería. La lista de maestros oficiales de fama sería demasiado larga y tediosa; unos tienen currículum comarcano y otros son gente emigrada a la tierra prometida desde el siglo XVI, que era La Rioja y zonas próximas de Alava y Navarra, la tierra del vino en suma, que vivía tiempos económicos favorables. Territorio no muy alejado en otro sentido pues pertenecía, como casi toda Bizkaia, a la diócesis de Calahorra. El formidable fenómeno de los “canteros vizcaínos”, es decir de todos aquéllos que se expresaban en euskera, trabajando en importantes encargos ya ha sido estudiado y no es éste el momento ni el lugar para volver sobre ello. Pero sí el de apreciar que entre lo que más llama la atención en el paisaje construido riojano están varias torres campanario. Y algunas de ellas y quienes las construyera es el objeto de este trabajo: Martín de Beratua y sus hijos Manuel y Sebastián.



Naturaleza

Martín de Beratua (1708-1770), el cabeza de familia - y esto es una constante en los "canteros vizcaínos"- nunca pierde la vecindad de su pueblo de nacimiento, Abadiño, en cuya parroquia de San Trokaz había sido bautizado el 13 Septiembre de 1708. Muy cerca de Logroño, en Oyón, mientras construía su famosa torre, fallecería el 14 Marzo de 1770.

Los que esto leen saben que muchísimos apellidos vascos provienen directamente de topónimos y algunos que el caserío Beratua está situado en el barrio de Moitoitio, parroquia de San Miguel-Garai (Bizkaia). Esa de

Beratua debe de ser la procedencia lejana de la familia pues desde el siglo XVI al menos, los apellidos Beratua fueron siempre parroquianos de San Trokaz de Abadiño. De donde se dicen vecinos.

Fueron sus padres Sebastián de Beratua, carpintero , y Josepha de Elexalde y estuvo casado con María de Mendiolagarai, -también de procedencia comarcana- quien le acompañó a La Rioja ; y allí, muy cerca de Logroño, en Desojo y Viana (Navarra) respectivamente, nacieron sus hijos **Manuel de Beratua** y **Sebastián de Beratua**, que también se dedicaron a la cantería, prolongando unos pocos años la presencia de la familia en la zona.



📍 Santo Domingo de la Calzada. (La Rioja).



Izquierda: Traza original de la Torre Exenta. Martín de Beratua. 1761. (Museo de la catedral de Santo Domingo de la Calzada).

Derecha: Traza original y estado actual de la torre.



Obra

Los tres Beratua, sobre todo Martín, que aparte de maestro cantero era empresario que contrataba y tracicista que planificaba y dibujaba, tienen mucha obra documentada, pero además es que, como todas las figuras destacadas, arrastran diversas atribuciones. Por supuesto, no sólo construyeron torres, sino también otros edificios, civiles y religiosos, aunque los campanarios son los que más se aprecia de toda su obra.

En la ciudad de Logroño, en 1748, cuando informaban ambos sobre la fachada de La Redonda, tuvo ocasión de tratar con la máxima figura de la arquitectura regional, el azpeitiano **Ignacio Ibero**. Las opiniones de Martín de Beratua siempre fueron muy respetadas. Otro aspecto a destacar.

Lo que no he podido nunca confirmar, aunque es muy probable que así sea, es que su período de formación transcurriera allí en La Rioja junto a dos paisanos del mismo Abadiño, ambos tracicistas: **Juan Bautista de Arbaiza**,

fallecido en 1748 que lleva siempre consigo a su yerno, **Ignacio Elexalde**, muerto en 1756. Lo supongo no sólo por razones medio de parentesco próximo o lejano - en Abadiño aparecen muy mezclados los apellidos Arbaiza, Beratua y Elexalde desde el siglo XVII- sino, sobre todo, por las influencias formales que arrastra de aquéllos. Aunque, después de independizarse, con quien más colabora y con quien forma cuadrilla es con otro vasco, **Martín de Arbe**, tracicista y experto en redactar informes, igualmente. Y, después de luego, con sus dos hijos canteros.

Si se tiene en cuenta el dinamismo de esas características "agujas" riojanas nos podríamos hacer idea de lo expertos que eran estas cuadrillas en despiezar y labrar las piedras, en hacer los andamiajes de madera, en subir los materiales hasta aquellas alturas, etc. Aunque esos no son más que aspectos técnicos-prácticos, porque luego están los formales, el diseño de las torres en sí con sus escaleras, ventanas, balaustradas, vanos de las campanas, remates, veletas, etc. Y el recargamiento decorativo de los campanarios, aunque sin referencia a las rocallas

rococó, como sería previsible por las fechas. Es en lo que destaca Martín de Beratua y lo que quiero resaltar aquí describiendo y valorando muy someramente cada elemento. Dando por supuesto que no son las diseñadas/hechas por Beratua las únicas torres que se levantaron en su tiempo. Que en La Rioja hay otras de parecido nivel de proyección y ejecución.

Construir una torre siempre resulta caro y mucho más si es de piedra y aún más si se trata de ejemplares monumentales. Las Fábricas tienen que medir muy bien los recursos para no pillarse los dedos. La ruina de una torre por un rayo por ejemplo, o por defecto de obra, o por vejez y cansancio de materiales suponía arduos esfuerzos económicos para la feligresía. Significaba empeñar la contabilidad durante años. De ahí que se mire mucho

a quien se confían traza y ejecución. Y que se gasten bastantes caudales en dictámenes. Por eso, aunque la documentación no sea escasa, es difícil entender con toda claridad la biografía de las obras.

En La Rioja, el modelo de torre barroca de la que arrancan las propuestas de Martín de Beratua es la de Santo Tomás de Haro, que se inicia en 1671 con una traza de **Juan de Raón** y culmina en 1719 el elorriano **Agustín Ruiz de Azcárraga**, con un recargado chapitel diseñado por **Fray Pedro Martínez**. Esquema que se seguirá luego muchas veces: alto fuste de cuerpos cúbicos superpuestos y austeros, sala de campanas ochavada y remate con cúpula, linterna, capulín y veleta, etc. Aquí, en las salas de campanas y remate, es donde se acumula la decoración con molduras, frontones, barandillas, eolípiles, costillas de la cúpula, etc.




Briones. (La Rioja).



Aguilár de Codés (Navarra)

Aguilár de Codés dispone de una airosa torre de campanas a los pies de su iglesia de la Santa Cruz. Data del año 1747 y está documentada como de Martín de Beratua, quien debe de trabajar allí con trazas propias por lo que se parece a la de Labraza-Alava, que también es suya y datada unos años después: iguales vanos para campanas, las mismas pilastras cantoneando las aristas del campanario, parecidos eolípiles, etc. Pero aún respondiendo al modelo general barroco de Haro, resulta más austera que otras diseñadas por Beratua. Por la contención decorativa, sobre todo.



Labraza. (Álava). 


La de **Labraza** tiene como diferencia más apreciable las placas recortadas de las pilastras del segundo cuerpo cúbico del fuste. Data del año 1768 y con Martín está documentado su hijo Manuel. La sobriedad decorativa tendrá que ver con el presupuesto. Como en Aguilar de Codés.

Las demás torres de Beratua son más fastuosas, con un aire de familia indudable, salidas de un mismo diseño. Las gemelas de **La Redonda de Logroño** son famosas y flanquean una fachada en hornacina que frente a la capilla "redonda"

de Los Angeles, trazada en 1742 por Juan Bautista Arbaiza. Se comprometía Martín a realizarlas en 1748, documentándose allí su presencia hasta su conclusión en 1762.

Lo que más destaca en las dos torres logroñesas es el contraste entre la sobriedad de los cubos superpuestos que suponen el hermético fuste, con doble pilastra enmarcando el más alto -como en Haro- y la riqueza del campanario y remate general con sus vanos de medio punto, frontones rotos y óculos, etc. Como en otras torres de Beratua.



Santa María La Redonda. Logroño. (La Rioja). 



📍 Santo Domingo de la Calzada. La Rioja.

Así en la muy esbelta de **Briones**. En 1756 estaba allí Martín de Beratua, con su inseparable Martín de Arbe, emitiendo dictámenes y haciéndose luego cargo de la obra, que se concluye en 1760, recibiendo entonces una gratificación por su buen hacer. Y el hacer es un fuste casi ciego con las aristas dulcificadas y muy severo, que alcanza la cornisa general del tejado. El último lleva dobles pilastras enmarcantes y encima va la ochavada sala de campanas, con sus ventanas de medio punto, frontones rotos, óculos, etc. Más arriba el capulín, la linterna con su carga de pináculos, bolas y demás. Todo como en La Redonda.

La de **Santo Domingo de la Calzada** es un hito de 69 mts. de altura en aquella planicie. Presenta como característica la de alzarse separada del templo, calle por medio,



📍 Oyón. (Álava).

con sentido pleno de “campanile”. Es algo más austera que las demás pero con el fuste igualmente hermético de cuerpo alto apilastrado doblemente. Los pináculos son arquitectónicos, los ángulos del campanario llevan pilastras, y los vanos de campanas, los óculos que los surmontan, la linterna etc., recuerdan también a La Redonda, aunque el cuerpo superior del fuste resulte más esbelta y el recargamiento decorativo del remate algo menos insistente, por dictamen, quizá, del vasco **Joseph de Ituño**. Al final, un audaz proyecto en que están involucrados Beratua y Arbe desde 1760 en que dieron traza.

Hacia poco que había tomado a remate la torre de **Oyón** cuando sorprendió la muerte a Martín de Beratua en 1770; tenía cumplidos los 61 años, y prolongaron la obra sus hijos hasta 1776. En Oyón se trataba



Santa María La Redonda. Logroño. (Rioja).



Oyón.



Logroño.

de completar las obras de reconstrucción de la iglesia y cuerpos bajos de la torre que entre 1744 y 1748, es decir hasta su muerte, había llevado Juan Bautista de Arbaiza. No sin dificultad se acusa la autoría de los dos canteros. Difiere de los demás "campaniles" de Beratua la forma de resaltar las aristas del campanario con columnas adosadas y los "conjuraderos" de cada lado del prisma superior, que ahora lleva pilas-tras enmarcantes simples, -quizá esto último porque pertenezca a lo que trazara Arbaiza- pero lo demás es afín a lo de Logroño: pináculos arquitectónicos, arcos de las ventanas del campanario, frontones rotos, óculos, bolas, etc.

Reconocimiento

En ningún sitio de España es frecuente el reconocimiento público a los artífices antiguos. No se cumple en el caso de Beratua pues en dos lugares he visto que se le evoca. Por una parte en Oyón, donde la calle antigua que pasa por debajo de la torre es, precisamente, la de Beratua y lo mismo en Logroño, una moderna rúa que une los viales principales de Gonzalo de Berceo y General Urrutia, en la Zona Oeste de la ciudad. De esta manera es cómo en La Rioja se hace memoria de un muy destacado vecino de Abadiño del s.XVIII, bautizado en la iglesia de San Trokaz y con orígenes lejanos en el caserío Beratua de Garai.

José Ángel Barrio Loza

Catedrático emérito de Historia del Arte de la Universidad de Deusto



aitzakirik ez
SIN EXCUSA

Ondare ibilbidea
Bisita audio-gidatuak

Ruta patrimonial
Visitas audio-guiadas

Iturri Kultur Etxea 946032032

www.elorrio.net

guztion egitasmoa



Abadiño

Elizateko Udala



Kultura Arloa
Área de Cultura

- * Errota Kultur Etxea.
- * Txanporta Kultur Etxea.
- * Udal mediateka.



OTXANDIOKO LIMITADUA

Mendetako liskar baten nondik norakoak

TESTUA: FERNANDO MARTÍNEZ RUEDA

ARGAZKIAK: TXELU ANGOITIA



Otxandiarrek iraileko azkenengo domekan egiten dute usadioak agintzen duen agerraldia. Herritar asko joaten dira "limitaduaren" mugak ikustera urtero; euren artean alkatea, basozaina eta idazkaria.

Ibilaldiari goizeko zortzietan ematen diote hasiera. Ibilbidean zehar, danbolin-hotsa lagun dela, basozainak mugako pago batzuetan Otxandioko ikurra markatzen du aizkora bereziaz.

Joan-etorria lau bat ordutan egiten dute. Tartean, hiru geldialdi egiten dituzte atsedena hartzeko. Ibiltarien gozagarri, Udalak ardoa eta bakailao-ogitartekoak ematen ditu doan. Muga-aldaketarik egon ez dela ziurtatu ondoren, udal-ordezkariek eta herritarrek euren izena idazten dute akta-liburuan. Kalera iritsitakoan amaitzen dute egun berezi horretako ekitaldia.

Ohitura hau burutuz, otxandiarrek euren jarrerari eusten diote 500 urteko auzian.

Limitadua 565 hektareako eremua da. Aramaioko (Araba) Oleta auzoaren eta Otxandioren (Bizkaia) artean dago. Otxandiarrek garrantzia handiko etekina atera diote lursail horri. Herria oso txikia dela kontuan hartu behar da. 1.242 hektarea baino ez dauka, eta horietatik 565 hektarea Limitaduarenak dira. Beraz, lur arlo horretatik eguneroko bizimoduari aurre egiteko baliabide asko eta asko lortzen zituzten garai batean otxandiarrek: etxea berotzeko egurra, abereei jaten emateko bazka, sutegetarako nahiz burdinoletarako ikatza eta nekazaritzarako lur batzuk ere hantxe eskuratzen zituzten. Gaur egun, Limitaduan herritarrentzako oinarritzko zerbitzu batzuk (eskola, kiroldegia eta abar), baserri batzuk eta zenbait ustiategi aurkituko ditugu (nekazaritzan, basogintzan nahiz industrian aritzen diren ustiategiak dira).


Aramaioren eta Otxandioren arteko auziak, liskarrak eta desadostasunak antzinatek datoz, azkenengo 500 urteotan behintzat hainbat tirabira izan dira Limitaduaren eskumena dela-eta. Limitadua Bizkaiko eta Arabako mugan dagoenez, bi herrien

arteko gatazka gehiago korapilatu da, bi Lurralde Historikoetako Diputazioak nahastuz. Jarraian, gai batzuk argitzen ahaleginduko gara: gatazkaren jatorria, mendeetan zehar izan duen bilakaera eta gaur eguneko egoera.



Limitadoaren kokapena. Pablo Sagardoy (Gerediaga Elkarte). Eusko Jaurlaritzaren kartografia.

Gatazkaren sustria aurkitzeko berant Erdi Arora jo behar dugu. Diego Lope Harokoak, Bizkaiko Jaunak, sortu zuen Otxandio XIII. mendearen erdi aldean. Herri hura sortuz, Gaztelaren eta Kantauriko portuen arteko merkataritza erraztea nahi zuen. Helburu hark baldintzatuta, Otxandio bideko hiri baten nortasuna hartu zuen historian zehar. Merkataritza-bide horretan ondo kokatuta zegoenez, burdingintza garatu zuen. Eta, hain zuzen ere, industria hura izan zen herriko ekonomiaren oinarria XIX. mendearen amaierara arte. Erdi Aroko beste edozein hiri sortzerakoan bezala, Otxandioren sorrerak ondorio batzuk ekarri zizkien herritarrei: arau bereziak (hiri-gutuneko pribilegioak), bertako agintariak (udalbatza, alkatea buru zela), eta lur-eremua. Hiribilduaren sorrerako agiririk ez daukagunez, ezin jakin Otxandiori nolako lur-eremua eman zioten hasieran. Hala ere, jakin badakigu herriak lur gutxi eduki zituela hasieran, eta hasierako une haietatik aurrera lurra -eta batez ere Limitadua- eskuratzeko borrokari ekin ziola.



Limitadaren gutxi gora-beherako mugak. Pablo Sagardoy, (Gerediaga Elkarte). Ortofotoa: Bizkaiko Foru Aldundia 2010.



Limitaduaren jabetza zela-eta, XV. mendean hasi ziren lehenengo tirabirak. Garai hartan Otxandioko Udala eta Aramaioko Jauna (Kondea) aritu ziren muturka. Auzi haiei amaiera emateko, Elvira de Leiva-k, Alfontso Muxikakoaren eta Butroekoaren ama eta ordezkaria zen aldetik, Aramaioko Jaunaren amak alegia, adostasunerako eskritura bat sinatu zuen 1457an. Agiri haren bitartez, Limitaduko lurren gozamina Otxandioko herritarrei "betiko" eskaini zien. Dena den, adostasunerako eskrituraren arabera, Aramaioko Jaunak Limitaduaren eskumenari eutsi egiten zion eta erabilerrari muga batzuk jartzen zizkion. Izan ere, lursail horietan zuhaitzak mozteko eta eraikinak egiteko, otxandiarrek baimena eskatu behar zioten. Usufruktua -otxandiarrena- eta eskumena -Aramaioko Jaunarena- bereizteak, eta Limitaduari etekina ateratzeko mugak, beste auzi batzuk eragin zituz-

ten. Beraz, 1457ko adostasunerako eskriturak ez zuen helburua lortu.

XVI. eta XVII. mendeetan beste liskar batzuk sortu ziren. Alde batetik, XVI. mendearen erdi aldera Aramaioko Kondeak, Gomez Butroekoak, Limitaduaren jurisdikzio-eskubideei etekina ateratzeko ahalegina egin zuen, lur horiek zerabiltzaten otxandiarrei zergak jarriz (lautik hamabi marabedira artekoak). Otxandioko Udalak auzitara jo zuen, eta 1554an epaileek Aramaioko Kondearen eskariei ezetza esan zieten; bestalde, otxandiarrek Limitadua inolako zergarik ordaindu barik erabiltzeko eskubidea bazutela onartu zuten. Epaile Nagusiak Gomez Butroekoari gai honen inguruan "betiko isiltzea" agindu zion. Horrelaxe amaitu ziren Otxandioren eta Aramaioko Kondearen arteko tirabirak.

Herritarren eta jauntxoaren arteko liskarrez gain, beste mota bateko desadostasunak ere gertatu ziren: Otxandioko herriaren eta Aramaioko Udalaren artekoak (jatorrizko agiriak aipamen zehatzagoa egiten du: "Concejo, hijosdalgo e homes buenos del Valle e Tierra de Aramayona"). Bi komunitateek atera nahi zioten etekina Limitaduko lursailei. Auzi gehienen oinarrian arrazoi nagusi bat egon zen: otxandiarrei Limitadua erabiltzeko eskubidea mugatu zietela. Muga hura baso-ustiapenarekin loturik zegoen gehienbat. Eta, jakina, egurra funtsezko gaia zen inguruko burdinoletarako eta sutegietarako ikatza egiteko. Otxandiok usufuktu osoaren alde egiten zuen; aramaioarek, ordea, zuhaitzak ipurditik moztea galarazi nahi zieten otxandiarrei. Iritzi desberdinak zirela-eta, herri batekoek isunak jartzen

zizkieten bestekoei eta jendea atxilotu egiten zuten. Hurrengo aldian, berriz, alderantzizkoa gertatzen zen. Alde batetik, haraneko herritarrek Limitaduari probetxua ateratzen ziotela ikusirik, Otxandioko alkateak zigortu egiten zituen. Beste alde batetik, zuhaitzak lurrares arrasetik moztea aitzaki hartuz, Aramaioko alkateak otxandiarrak kartzelara sartzen zituen. Tirabira horiek zirela-eta, beste arazo bat sortu zen: jurisdikzio-agintea. Hau da: Limitaduan bidegabekeriaren bat eginez gero, nork esku hartu behar zuen? Otxandioko alkateak edo Aramaiokoak? Ikusten duzueenez, usufuktuak eskumenari buruzko auzia ekarri zuen.

XVII. mendean, Limitaduko usufuktuaren mugak eta Otxandioren eskumenak zirela-eta sortutako



auziak Otxandiok irabazi zituen. Zenbait auziren ondoren, 1664an Limitaduan basoa ustiatzeko erabateko eskubidea eman zioten Otxandiori, Aramaiori eskubidea ukatuz (Hona hemen erabakia hitzez hitz: “declaro tocar y pertenecer a la villa de Ochandiano en posesión y propiedad el derecho y aprovechamiento de cortar en todo el término Limitado y en cuanto a la dicha corta y término y su aprovechamiento no pertenecer derecho alguno en todo el dicho término Limitado al dicho Valle de Aramayona”). Horrez gain, Limitaduan baso-ustiapenean egindako bidegabekeriak erabakitzeko eskumena Otxandiori eman zion epaiak. Jurisdikzio-ahalmen berriak antzestu egin zituzten nolabait jende aurrean. Horretarako, alkatea Limitaduko basoetara joan zen, aginte-makila eskuan

zeramala. Harrez gero, Otxandioko alkateak urtero egiten du *basabisita*. Gaur egun ohitura hori jaieguna eta nortasuna aldarrikatzeko erritua da otxandiarrentzat.

1664ko epaiak Limitaduaren gozamenaren eta jurisdikzioaren inguruko gai batzuk argitu bazituen ere, desadostasunak ez zituen behin betiko konpondu. Lurraldeari dagozkion gaiak ez zituzten argitu. Egia da Otxandiori usufruktua eta jurisdikzioa eman ziotela, baina ez zioten jurisdikzio osoa eman, jurisdikzioaren zati bat baino, basoa ustiatzeari zegokiona. Egoera zalantzarri hark desadostasuna ekarri zuen berriro Limitaduaren ingurura. XIX. mendearen bigarren zatian zergei buruzko tirabirak sortu ziren (garai hartan ogasuna





Diputazioen esku geratu zela gogoratzea komeni da). Limitaduko aberastasunak eta ondasunak zirela-eta, zergak nori ordaindu? Horixe zen auzia. Aramaioko lurraldea zen aldetik, Arabako Diputazioari ordaindu edo, Otxandiokoa zen aldetik, Bizkaikoari ordaindu?


Bai Otxandiok bai Aramaiok, eta baita Bizkaiko eta Arabako Aldundiek ere, Limitadua bakoitzaren ogasunetara loturik zegoela erabaki zuten. Gauzak horrela, 1860an Arabako Diputazioa Limitaduko jabeei zerga kobratzen saiatu zen. Horrek Otxandio-ren protesta eragin zuen. 1880an, berriz, Aramaiok Limitadua sartu zuen bere nekazaritza-ondasunen artean. Ondorioz, Aramaiok Arabako ogasunari ordaindu beharko zion Limitaduko aberastasunari probetxua ateratzeagatik. Era berean, Aramaioko Udalak zergak eskatu zizkien lursail horietan jabe-

tzaren bat zeukaten otxandiarrei, baina otxandiarrek ez zuten zergarik ordaindu nahi. Antza denez, Aramaio kexu zegoen, otxandiarrek Limitaduko onurak hartzen zituztelako, eta trukean ez zutelako ezer ordaintzen. Hori zela-eta, 1890ean eta 1904an Limitaduko uzta eskuratzen saiatu ziren, ordaindu gabeko zergen ordaintetan. Gertakari horrek tentsio handia eragin zuen bi herrien artean.

Egoera gero eta larriagoa zenez, XX. mendearen hasieran argi geratu zen Limitaduaren auzi luzeari nola-baitekoko konponbidea bilatu behar zitzaiola. 1911an Arabako eta Bizkaiko Aldundiek, eta Aramaioko eta Otxandioko Udalek bat eginik, epaile-lanak Gipuzkoako Aldundiak egingo zituela onartu zuten. Batzorde Berezi bat eratu zuten egoera aztertzeko. Urte hartako urriaren 12an Gipuzkoako Diputazioak Batzordearen txostena onartu zuen. Txosten haren



bidez Limitaduko lursailen jurisdikzioa eta zerga-ordainarazpena Aramaiorenak zirela eman zuen jakitera. Otxandioko Udalak eta Bizkaiko Diputazioak ez zuten onartu erabaki hura, Batzorde Bereziak ez omen zuelako bete adostutako prozedura.

Auzia behin betiko konpontzeko azkenengo saioa 1999an egin zuten. Arartekoaren ekimena izan zen. Eremuaren egoera administratiboa ondo zehaztu gabe zegoenez, herritarrek zenbait arazo pairatu behar zituzten, zerga kontuetan batez ere. Limitadua bai Otxandioko katastroan bai Aramaiokoan sartuta zegoenez, Bizkaiko eta Arabako ogasunek zerga berdina eskatzen zuten batzuetan, nahiz eta aldez aurretik bietako batean ordainduta egon. Arazo horiei irtenbidea emateko eta auzia konpontzeko, Arartekoa bitartekari-lana egiteko prest agertu zen. Udalek eta Diputazioek onartu egin zuten. Arartekoak Limitadua bi zati berdinetan banatzea proposatu zuen: 283 hektarea Otxandiorentzat eta 282 Aramaiorentzat. Aramaiok baietz esan zion Arartekoak proposatutakoari; Otxandioko Udalak, ordea, zergei dagokiena besterik ez zuten onartu. Hau da: Ogasunari dagokionez Limitaduaren ia erdia Aramaioren eta Arabako Diputazioaren esku egotea onartu zuen, baina beste arlo batzuetan Limitadu osoan esku hartzeko eta agintzeko gaitasunari ez zion uko egin. Eta gaur egun auzia egoera horretan dago. Zerga-gaietarako onartu dute banaketa, baina administrazio-gaietan egoerak argitu barik jarraitzen du. Beraz, Limitaduaren jurisdikzioa dela-eta, Aramaioren eta Otxandioren arteko mendetako ika-mikak bizirik dirau. 

Fernando Martínez Rueda

UPV/EHUko Historia Garaikidearen irakaslea





Otxandio

*Burdinatik sortutako uria.
Iragana ahaztu gabe, eguneroko lanarekin,
etorkizuna eraikitzen ari den herria.*





Erdi maila eta goi mailako zikloak
DBH-Batxillergoa / Gela egonkorra-SAT

Frai Juan de Zumarraga 23. 48200 Durango

Tel:94 6817730 / 946571060. Fax:94 6810258

e-posta: fjumarraga@euskalnet.net

www.durangokoinstitutua.com

Iurreta

Hiru uren
artetik



sortzen
arí garen
herria.



EL PALACIO ITURRI

Historia y propiedad de un edificio civil barroco



TESTUA: **IGOR BASTERRETXEA KEREXETA**
ARGAZKIAK: **TXELU ANGOITIA**

Un acercamiento al momento histórico y social

Durante los siglos XVI a XVIII, y vistas las escasas posibilidades que mostraban el valle y las montañas, la vida económica de muchos vascos se centró en el comercio hacia América de, sobre todo, hierro manufacturado. Ninguna excepción fueron los elorrianos, quienes también se adentraron en ese mundo mercantil, hasta el punto de conformar un perfecto lobby de familias y vecinos unidos entre sí que hicieron principalmente de Sevilla y de las compañías creadas por ellos allí, vía las Indias, su paraíso particular.

